



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRAGARKIA

2019ko azaroaren 7ko Alkatetza Dekretu bidez honakoa erabaki da:

LEHENA.- Azkoitiko udalak, UROLA EKITEN V proiektuaren eta FORMATEU VIII TICs azpi-proiektuaren baitan, enplegua sustatzeko (1. motako jarduera) administrari bat (6 hilabeterako) – kontratazeko **deialdia** egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera.

BIGARRENA.- Hautagaiak bete beharreko baldintzak eta lanpostuen ezaugarriak jasotzen dituen dokumentua onartzea, ebazpen honi eranstean zaizkionak.

HIRUGARRENA.- Deialdiari dagokion zabalkundea ematea, Udaleko web orrian lan eskaintza atalean, berrien atalean, komunikabide desberdinetan eta *Urolanprest*-en, **betiere enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko diru-laguntzen deialdia onartzen duen 2019ko otsailaren 28ko ebazpenaren 13. artikulua xedaturikoa betez; zera, diru-laguntza jasoko duten erakunde onuradunek espresuki adierazi beharko dutela kontratazio horiek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jaso dutela.**

LAUGARRENA.- Hautagaien zerrenda, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez osatuko da, erakunde horrek egingo duelarik aurre-hautaketa, ezarritako ezaugarri eta baldintzak aintzat hartuz.

BOSGARRENA.- Aurre-hautaketa eginda, udalak dagokion hautaketa egingo du, horretarako ondoko Epaimahai kalifikatzailea eratuko delarik:

- Epaimahaiburua: Idazkaria edota Kontratazio eta Pertsonaleko A.O.T.
- Epaimahaikideak:
 1. Idazkaria.
 2. Ongizate Saileko teknikari bat.
 3. Kontu-hartzailea edo Kontu-hartzaitzako teknikari bat.
- Epaimahaiko Idazkaria: Idazkaritza Saileko Administrari bat.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontu-hartzaitza sailari ematea.

Azkoitian, 2019ko azaroaren 7an
ALKATEAK,